

Buruketetan trebe !



Buruketa ttipi hauek buruz ebaztekoak dira.
Irakurri, gorde, buruan ikusi edo kondatu, berriz begiratu
segurtatzeko, kalkulatu eta emaitza aurkitu.
Txalo !!!

Ad : Amanek 100 tinbre baditu eta Lukasek 20 baizik ez. Amanek Lukasek baino tinbre gehiago du. Zenbat aldiz gehiago ?

**20x5=100
5 aldiz gehiago ditu.**

Hara eta orain hiri !

1 Usaian, Xalbatek 13 minutu ematen ditu eskolara heltzeko. Gaur denbora bikoitza behar izan du. Zenbat denbora eman du eskolara joateko ?

.....

.....

2 Sofiak 800 metro iragan behar ditu eskolara joateko. Faridek distantzia horren laurdena baizik ez du kurrutu behar. Zer distantzia da haren etxetik eskolara ?

.....

.....

3 Dimitriren albumean 90 irudi sar daitezke. Albumaren herena betea du jadanik. Zenbat irudi dira haren albumean?

.....

.....

4 Arturok papaita bat egiten dio Xexiliri : “Zenbaki bat gogoan dut, zenbaki horren erdia hartzen dut. 15 atzematen dut”. Zer zenbaki du gogoan Arturok ?

.....

.....

5 Xexilik papaita bat egiten dio Arturori : “Zenbaki bat gogoan dut, zenbaki horren laurdena hartzen dut. 15 atzematen dut”. Zer zenbaki du gogoan Xexilik ?

.....

.....